

MIKEL PERUARENA ETA MILA APEZETXEA - BATASUNAKO KIDEAK

## “Modu batera edo bestera baina Batasunak aterako ditu listak hauteskundeetan”

■ Azken atxiloketa eta miaketek eta Batasuna ilegalizatzeko asmoek relazio zuzena dutelakoan daude.

■ Ezker Abertzalearen kontrako operazioa aspaldi hasi zela diote, ez dela orain hasitako kontua.

■ Egoera beltza ikusten bada ere, urte batzuren buruan eszenario berriak iritsiko direla pentsatzen dute.

**AUDIENZA** Nazionalak zuzendutako azken operazioek eta Batasuna ilegalizatzeko lege proiektuak, partiduan zein eragin izan duten jakin nahian, Batasunara jo dugu. Mikel Peruarena Hernaniko komunikazio arduraduna eta Mila Apezetxea alkateordearekin hitz egin dugu.

■ **Batasuna legez kanpo uzteko asmoak eta azken aldiko operazioak relazionatuta daudela uste al duzue?** Bai. PP eta PSOE Batasuna legez kanpo uzteko legea aurrera atera nahieran dabilta, eta horrelako operazioekin, izan ditzaketen trabak kendu nahi dituzte Ezker Abertzalea eta ingurua desprestijiatuta.

■ **Demagun lege berria onartu eta Batasuna ilegalizaten dutela. Pentsatu al duzue nola jokatu?** Oraindik gehiegi ez. Legearen nondik norakoak ez daude oso argi eta gainera gure lana baldintzatuko luke horretan pentsatzeak. Litekeena da lehenago listetan egon den jendeak ezin berriro listetan sartua, edo bai? Gauza bat argi dago, era batera edo bestera Batasunak listak aterako dituela. Hemen, gizarteak babesten duen proiektu politiko bat dago, eta legez kanpo uzten bada argi geldituko da zein demokraziatan bizi garen. Hasi gara hurrengo hauteskundetarako eztabaidak planifikatzen; Irailean gara horretan hastekoak, eta listak ere hor zehaztuko dira.



Mikel Peruarena eta Mila Apezetxea, Hernaniko Kronikak egindako elkarrizketan.

■ **Badirudi egoerak zakartzera egin duela. Irtenbideren bat ikusten al da?** Egoera gogorra da, baina, bestelako eszenarioak ere egoera gogorretik etorri izan dira. Marko politiko honek herritarren nahiak asetzen ez baditu, bitartekoak jarri beharko dira gainditzeko; horretan lan egin behar dugu.

Batasunaren mezua gutxi aldatu da azken 5-6 urteetan, koherentzia bat mantendu dugu. Lizarra-Garaziko akordioak erakutsi zigun nondik jo behar genuen eta geroztik horretan ari gara lanean. Batzuetan asmatuko genuen eta bestetan ez, baina,

bidea nahiko argi daukagu, eta gauza batzuk lortu ditugu: autodeterminazio eskubidearen aldarrikapenak indarra hartu du, eskubide sozialen aldarrikapenak ere bai, hezkuntzan jendea kontzientziatuago dago... Egoera

“Gizarteko parte baten ideiak legez kanpo uzteak demokrazian ez garela bizi nabarmen utziko luke”

beltz ikusten da orain, baina urte gutxiren buruan egoera edo eszenario berriak ikusiko ditugu.

■ **Politika eta egoera orokorrak ez al du asko baldintzatzen herrian lan egiteko modua?**

Normalean politikak goitik behera eragiten du. Guk hala ere bestelako filosofia bultzatu nahi dugu: herri mugimenduen indartu eta politikan eragina izan dezatela.

Batzuk herritik gorako gauza hartzen dituzte akordioetara ez iristeko aitzikia gisa, eta Hernanin ere bai. Baina, kontrako aldera ere gertatzen da, goitik akordioak lortu eta herrian eragin gutxi izatea. Lizarra-Garaziren garaian Hernanin ez zen akordioirik izan. □

### ■ FUTBOLA

#### Hernani-Mutriku eta Hernani- San Ignacio gaur Zubipen

GORENGO Mailako taldeak igotzeko aukerak galduak ditu, baina, Goiko postuetan bukatu lezake liga. Gaur Mutrikuren kontra neurtuko da Zubipen, 17:00etan.

Emakumezkoen Kopan, berriaz, Hernani eta San Ignacio neurtuko dira gaur Zubipen 11:30etan. Bigarren eta hirugarren dijoaz.

### ■ PELOTA

#### Pala Txapelketako finala, gaur

HERNANIKO Pala Txapelketako finala gaur jokatu da kiroldegian. Inigo-Oskar / Lujanbio-Etxegia neurtuko dira. Aurretik, 3-4 postuak jokatu dira: Ubarretxena-Galarza / Imaz-Balero. 10:30etan.

**Herri Artekoan, 3-0 irabazi** Herri Arteko Txapelketa jokatu zen Ostiralean kiroldegian. Hernanik 3-0 irabazi zion Andoaini. □

#### ‘Ama Lurraren Defentsan’ erakusketa Udaletxean

AMA Lurraren Defentsan erakusketa herriz herri darabilkite, eta datorren astean Hernaniko Udaletxean egongo da, Areto Nagusian. Inguruari kaltea eragiten dioten arazoak azaltzen ditu. Agenda 21-aren filosofiarekin bat datorrela eta ekarri dute Hernanira. Orduetgia: astelehenean ostiralera 09:00-13:00 eta 17:00-20:00. Larunbat eta igandean 09:00-13:00. Astelehenean 19:00etan Agenda 21eko logoaren saria emango dute. □

#### IGELTSERITZA LANAK

#### Etxeberria anaiak



Elizatxo auzoa 20 - behea  
Tel.: 943 331 026  
Mobila: 629 119 162  
20.120 HERNANI

Gipuzkoarako eskusiban **LAND ROVER** kontzesionario ofiziala.  
**EUROLAN 4 x 4 (VOLVO ondoan) - ☎ 943 33 10 06**

**Hernani Institutua**  
A. Iturriaga - K. Labaka

**Ikastetxea ikusteko, maiatzaren 29an arratsaldeko 18:30etan**

Sta.Barbara z/g.Tel 943 551188 - K.Labaka 7.Tel 943 551958  
[www.hernanibhi.hezitek.net](http://www.hernanibhi.hezitek.net)  
e-mail: [hernani@hernanibhi.hezitek.net](mailto:hernani@hernanibhi.hezitek.net)

#### ESKAINZA

**BATXILERGOAK**

- Natur eta Osasun Zientziak
- Humanitate eta Gizarte Zientziak
- Teknologikoa

**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak
- Mekanizazioa

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

- Informazio eta merkaturatze turistikoa
- Proiektu mekanikoaren garapena
- Kultur eta gizarte animazioa
- Instalazio elektroteknikoak
- Alojamendua



Ezkerrean, oraingo pasealekua. Eskubian goian, plano orokorra; behean, nola geldituko den.

## Antziola-Latsunbe enlazeak bi sentidutako karretera eta bi aldeetan pasealekua izango ditu

■ Ondo bidean, asteazkeneko Gobernu Batzordean onartuko da ■ Obrak aurten bertan hasi litezke ■ Proiektuak 720.000 euroko aurrekontua du.

ANTZIOLA-Latsunbe enlazea datorren aste honetan bertan onartu lezake Udalak. Proiektuak Antziola eta Latsunbe lotuko ditu, Ertzainetako rotondatik Antziolan dihoan rotonda arteko bidea eginda.

Enlazeak bi sentidutako errepidea izango du eta alde banatan oinezkoentzako pasealekua. Tramo osoa 290 me-

tro luze da eta 17 metro zabal (gaur egunean 3 metro zabal da denera).

Bi sentidutako karretera 7 metro zabal izango da. Oinezkoentzako pasealeku bana izango du alde bakoitzean: 5 metro zabalekoa bat eta 2koa bestea. Pasealekua Antziolako zubiraino dihoia. Bide guztian argiak eta bankuak jarriko di-

tuzte. Proiektuaren helburu nagusiak 3 dira: 1) Herri barrua eta auzoak hobeto komunikatzea, 2) trafikoa enlazetik barrena bideratu eta Zinkoenean trafikoa arintzea, eta 3) Oinezkoentzako bidea egokitzea.

Tramiteak bukatuta, obrak aurten hasi litezke eta 5 hilabetez bukatua beharko dute.

### ✓ ARRAUNA -TRAINERILAK-

**Jubenilak gaur Getarian.** Atzo 7garren eginda, Gipuzkoako kanpeonatoa jokatu dute gaur Jubenilek Getarian, 11:30etan. Nagusiek haizea kontra izan zuten 2garren tandan eta ez ziren klasifikatu.


### ✓ BOLA

**Gipuzkoako Txapelketa Altzan.** Bi tiralditara jokatu da Gipuzkoako Bola Txapelketa: gaur Altzan eta gaur zortzi Legazpin. Hernaniko bolariak faboritoen artean daude. □

### INFORMATIKA ARETOKO IKASTAROAK

**EXCEL 2000**  
Maiatzaren 20-tik 24-ra  
**ACCESS 2000**  
Ekainaren 3-tik 7-ra

**Informazioa:**  
Larramendi 11, beheera. Tlf: 943 551000  
Ordutegia: 15-tik 22-ra.



### SANTA BARBARA

PEUGEOT



Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 -Tel. 943 551 139 - 943 551 979  
Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoez aldatzen ditugu

Opel Astra Carvan		NA-AK
Peugeot 205	5 ate	SS-AV
Citroen AX	Diesela - 5 ate	VI - L
Opel Corsa	5 ate	SS-AK
Volkswagen Polo	6 ate	SS-AJ
Renault Express	Diesela	SS-AS
Mercedes Furgoneta	Diesela	SS-AH
Seat Ibiza	Diesela	SS-AJ

.....eta hainbat kotxe merke.

**OKINDEGIA  
ANTZIOLA**

Betiko lekuan gaude, eguneroko ogirik onena banatzen!

ANTZIOLA 3 - Tel. 943 55 17 91

Orain beste denda bat zabaldu dugu:

Ogia, pastelak, gozokiak, kafea, refreskoak,...

Bi ordenagailu, jendearen erabilerarako.

Erakusketak: ZOIA NOVIKOVA margolariaren kuadroak.

MONTEBIDEO, 3 behea

**JON XER**

Kale Nagusia, 7  
☎ 55 00 32  
HERNANI

## ■ HITZ BITAN

### ✓ ESKUBALOIA

**Direktibak kargua utzi egingo du.** Hernaniko Eskubaloi taldeko zuzendaritzak kargua aurten utziko du, bost urtean lan egin eta gero. Zuzendaritzak prentsa ohar batean elkarte, entitate, jokalarik eta gainerakoek lana eskertu du "denon laguntzarik gabe ez baita posible hau aurrera ateratzea". Jende berria sartzeko beharra nabarmendu du direktibak.

### ✓ MOLOTOFF IRRATIA (FM 99.2)

**Herri Urrats zuzenean.** Molotoff irratia Herri Urrats zuzenean emitituko du gaur. Programa Gure Irratiak, Xiberuko Botzak eta Irulegi Irratiak egiten dute eta beste hainbat irratik ere botako dute, Arrosan adostuta, elkarlanean.

### ✓ UDAL INFORMATIKA ARETOA

**Excel eta Access ikastaroak.** Udal Informatika Aretok (IMI) ordenagailu ikastaroak antolatu ditu. Excel eta Access programak erakutsiko dituzte, 20 orduko ikastaroetan. Bi turno daude betetzeko: Maiatzaren 20tik 24ra eta ekainaren 3tik 7ra. Ordua: 16:00-20:00. Informatika aretoko arduradunak esan digunez ikastaro aproposa da Windows eta Word ikasi dituztenentzat. Izena emateko deitu 943 551 000 telefonora (arratsaldetan).

### ✓ TANGOKA IKUSKIZUNA

**Sarrerak salgai.** Tangoka antzerki, musika eta kantu ikuskizuna da, Kantuz Abesbatzak zuzendua eta herriko jende askok parte hartzen duena. Maiatzaren 18, 22, 23 eta 24ean estreinatuko da Biterin. Sarrerak salgai daude Aurki, Haizea, Oindi eta Kitton, 3 eurotan.

### ✓ JAUN-HARTZEA

**Komunioak gaur Floridan.** San Jose Langilea Parrokian Jaun Hartzea egingo dute 28 umek. Gaur, eguerdiko 12:00etan. □

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

▶Taxiak:	943 550093
▶Udaltzaingoa:	943 333288
▶DYA:	943 464622
▶Autobusak:	943 556662
▶Anbulatorioa:	943 006666
▶Jokalarik anonimoak:	943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

▶Egunez:	Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087
▶Gauetz:	Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087

### IRAGARKI MERKEAK

Janaridenda salgai Kale nagusian. Berritua eta martxan dagoena. Interesatuak deitu: 943 55 01 36 - 55 59 14.

**ARALAR  
TABERNA**

ZAPA KALEA 8, Tel. 943 33 15 06

**JUBILATU ETXETOKO JATETXEA**  
Atzieta 16 (Goiz Eguzki) -943 553204

**ASTEKO MENUA**  
Jubilatuak 5 euro  
Bestek 6,6 euro

**IGANDETAN**  
Jubilatuak 6,6 euro  
Bestek 7,8 euro

## INFORMATIKA APLIKAZIOEN GARAPENA

### Goi Mailako Heziketa Zikloa



### AITA LARRAMENDI IKASTOLA ANDOAIN

ZATOZ GUREKIN ETORKIZUNEN  
BIDE DIGITALA EGITERA!  
IZEN-EMATEA: EKAINAREN 3tik 13ra



### INFORMAZIOA

AITA LARRAMENDI IKASTOLA - Txistoki Pasealekua - 20140 ANDOAIN  
Tel 943.593.525 Fax 943.590.390 E-mail: andoain@ikastola.net  
www.andoainikastola.net